



EBAZPENA, 2019ko apirilaren 11koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez udal musika-ikastegiei 2018ko dirulaguntzak ematen baitzaizkie, Udal musika-ikastegietarako dirulaguntzen deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2018ko azaroaren 27ko Aginduari jarraituz.

2018ko abenduaren 13an, argitara eman zen Hezkuntzako sailburuaren 2018ko azaroaren 27ko Agindua, Udal musika-ikastegietarako dirulaguntzen deialdia egiten duena 2018ko ekitaldirako, hain zuzen ere 2017-2018 ikasturtean izandako kostuak partez finantzatzen laguntzeko.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak ebaluatu ditu aurkeztutako eskaerak, aginduaren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta, betiere, jarduketa guztietan errespetatuz oinarri arautzaileetan eta indarreko araudian dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko ezarritako prozedura. Ebaluazio horren emaitza ikusita, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak –horretarako izendatu baitzen aipatutako artikuluekin bat etorriz– ebazpen-proposamena egin eta helarazi zion Hezkuntzako sailburuordeari, hautaketa-prozesuan onartutako eskaerei dirulaguntzak eman eta ukatzeko.

Hezkuntzako sailburuordeak proposamena jaso ondoren, eta aginduaren 14. artikuluan xedatutakoari jarraituz, sailburuordeak berak ebatziko ditu eskaerak eta erakunde interesdunei jakinaraziko dizkie. Horretarako, lau hilabeteko epea izango du gehienez, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Adierazitakoagatik, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- I. eranskinean zerrendatzen diren erakunde onuradunei ematea udal musika-ikastegiei zuzendutako dirulaguntzak, eranskinean bertan zehazten diren zenbatekoen arabera, 2017-2018 ikasturteko kostuak partez finantzatzeko, betiere Hezkuntzako sailburuaren 2018ko azaroaren 27ko Aginduaren 13. artikuluekin bat etorriz, eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren proposamenez.

2. artikulua.- II. eranskinean ageri den erakunde eskatzaileari ukatzea dirulaguntza, 2018ko abenduaren 27ko Aginduaren 3 a) artikuluan ezarritako parte-hartze betekizunekin bat etorriz, eta Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren proposamenez.

3. artikulua.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea, herritar oro jakitun egon dadin.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Gainerako betekizunei dagokienez, kontuan hartuko da Hezkuntzako sailburuaren 2018ko abenduaren 27ko Aginduan xedatutakoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena ikastetxeei jakinarazten zaien egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 11.

Hezkuntzako sailburuordea,
MIREN MAITE ALONSO ARANA



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1JRW-YSTZ bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1JRW-YSTZ en la sede electronica <http://euskadi.eus/lokalizador>


I. ERANSKINA, 2019ko apirilaren 11ko Ebazpenarena - EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Udal musika-ikastegiak

ZK.	ESKOLAREN IZENA	TITULARRA	FINANTZATU DAITEZKEEN ORDUAK	DIRULAGUNTZA
1	EMPU "DONOSTIA" MEPU	Org. Autón. Local Música San Sebastian	2.037,52	641.787
2	EMPU "JESUS ARAMBARRI" MEPU	Org. Autón. Local Bilbao Música	1.833,86	577.640
3	CPM "LEIOA" MKP	Fundación Pública Mun. Soinu-Atadia	1.704,19	536.793
4	EMPU "ANDRES ISASI" MEPU	Con. Mus Andrés Isasi de Getxo	1.381,89	435.275
5	CPM "IRUN" MKP	Irungo Udala	1.372,16	432.210
6	EMPU "LUIS ARAMBURU" MEPU	Org. Autón. Local Música Vitoria-Gasteiz	1.337,56	421.313
7	CPM "BARAKALDO" MKP	Barakaldoko Udala	1.023,62	322.424
8	EMPU "ERRETERIA MUSIKAL" MEPU	Patron. Munic. de Música. Erreteria Musikal	934,39	294.318
9	EMPU "BARTOLOME ERTZILLA" MEPU	Fundación Pública Bartolomé Ertzilla de Durango	889,86	280.292
10	EMPU "INAZIO BEREZIARTUA" MEPU	Asoc. Bereziartuar I. Musika Eskola-Elgoibar	813,74	256.316
11	EMPU "PASAIA MUSIKAL" MEPU	Fund. Pública M. Musikal Pasaia	809,58	255.004
12	EMPU "SEGUNDO OLAETA" MEPU	Fund. Púb. Casa de Cultura S. Olaeta Gernika-Lumo	759,80	239.325
13	EMPU "SANTOS INTXAUSTI" MEPU	Mungiako Udala	741,91	233.691
14	EMPU "MAXIMO MORENO" MEPU	Centro M. Activ. Música. Org. Autón Galdakao	687,51	216.555
15	EMPU "LOATZO" MEPU	Loatzo Udal Herri Mankomunitatea	631,14	198.798
16	EMPU "ERANDIO" MEPU	Erandioko Udala	555,74	175.049
17	EMPU "LOINATZ" MEPU	Org. Autón. Munic. Música Beasain	539,21	169.843
18	EMPU "EDUARDO MOCOROA" MEPU	Tolosako Udala	536,64	169.032
19	EMPU "SANTURTZI" MEPU	Santurtziko Udala	509,74	160.561
20	EMPU "ZUBIAUR" MEPU	Ametx Zornotzako Kult. eta Eusk. Zerbitzua	483,35	152.249
21	EMPU "ANDOAIN" MEPU	Andoaingo Udala	473,55	149.161
22	EMPU "HERNANI" MEPU	Hernaniko Udala	466,35	146.893
23	EMPU "ARRATIA" MEPU	Arteako Udala	461,82	145.468



24	EMPU "EUTERPE" MEPU	Portugaleteko Udala	429,50	135.284
25	EMPU "DEBA MUSIKAL" MEPU	Fund. Páb. Ser. Deba Musikal	427,57	134.678
26	EMPU "AMURRIO" MEPU	Fund. Munic. Música Amurrio	425,91	134.155
27	EMPU "VICTOR MIRANDA ZUAZUA" MEPU	Sestaoko Udala	365,23	115.042
28	EMPU "JUAN B. GUIASOLA" MEPU	Pat. Con. M. Musical Juan B. Guisasola- Eibar	337,51	106.311
29	EMPU "TOMAS GARBIZU" MEPU	Lezoko Udala	335,11	105.556
30	EMPU "LASARTE" MEPU	Lasarte-Oriako Udala	329,18	90.531
31	EMPU "DANBOLIN" MEPU	Orioko Udala	310,56	97.820
32	EMPU "TRAPAGARAN" MEPU	Valle de Trápaga-Trapagarango Udala	307,35	96.810
33	EMPU "IMANOL URBIETA" MEPU	Zarauzko Udala	305,96	96.373
34	EMPU "JOSE ANTONIO EGIA" MEPU	Bermeoko Udala	305,42	96.201
35	EMPU "AGURAIN" MEPU	Aguraingo Udala	271,17	85.415
36	EMPU "MUTRIKU" MEPU	Mutrikuko Udala	254,59	80.192
37	EMPU "UNANUE'TAR PEDRO M." MEPU	Ondarroako Udala	242,82	76.483
38	EMPU "LOURDES IRIONDO" MEPU	Kulturnieta S.A	198,55	62.540
39	EMPU "GETARIA" MEPU	Getariako Udala	178,52	54.892
40	EMPU "TARINE" MEPU	Berriatuko Udala	171,90	54.147
41	EMPU "DULANTZI" MEPU	Alegria-Dulantziko Udala	165,32	52.074
42	EMPU "URKABUSTAIZ" MEPU	Org. Autón. Municipal Música Urkabustaiz	157,84	42.419
43	EMPU "ASPARRENA" MEPU	Asparrengo Udala	91,37	28.780
GUZTIRA			8.355.700	

II. ERANSKINA, 2019ko apirilaren 11ko Ebazpenarena - UKATUTAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

Udal musika-ikastegiak

ZK.	Zentroaren izena	Tilularra	Ukatzeko arrazoiak
1	EMPU "BASAURI" MEPR	Basauriko Udala	3 a) artikulua arabera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea indarrean jarri aurretik sortuta zeuden ikastegiak bakarrik parte hartu ahal izango dute.